




ILEROKO ALDIZKARI EDERGARIDUN AITA KAPUTXINOAK ZUZENDUA

—:	X Urtea	1928'ko Uztaila	115 Zenbakia	:—
----	---------	-----------------	--------------	----

SAKRAMENTUAK

*Haurietis aquas in gaudio de fontibus Salvatoris (ls. XII-3).
Zeruratzalearen iturietatik pozik aterako dituzute urak.*



Zazpi Sakramentuak Jesukristok jafiak dira.

Aurkalari edo Protestanteak ez dute aitortu nai, baño eztago eztabairik, zazpi Sakramentuak Jesukristo berak jafiak dira.

Trento'ko Eliz-batzaře Nagusiak onela dio: Iñork esango ba-lu, Lege Beñiko Sakramentuak ez dirala guziak Jesukristo Gure Jaunak jafiak; edo zazpi baño geiago edo gutxiago dirala, au da Bataioa, Sendortza, Jaunartzea, Aitortza, Azken-igurtzia, Apaizgoa ta ezkontza; edo beroietakoren bat egiaz eta ziñez ez dala Sakramentua, gaitzetsia izan bedi: *anathema sit*.

Apostoluetatik asi-ta Elizaren lenengo Guraso santu guziak, ondo zetorkien garaiean, bein bat bein bestea aipatuz etofi ziran eta iñori etzitzaion gogoratu egi onen kaltetan joa-tea. Baño Elizaren etsai oiei bai, eta Elizagandik boskafen mendeaz geroz berezirik dauden Grezia'ko Zismatikotara jo zuten lagun bila, aiek ere Efomako Elizaren kaltetan berekin bat egingo ziralakoan.

Baño 1575-garren urtean Konstantinoplako Patriarka Jeremias II-garenak erantzun zien, aien gezurfei gogor egiñez eta Jaungoikoaren gaitzespena (madarikazioa) beren befiketak merezi zutela esanez.

Sakramentuen egokitasuna

Gizonaren animako bear guzietarako ain egoki bai datoz zazpi Sakramentuak:

Bataioaz jaiotzen da jainkozko bizitzara; Onek ematen dio Eli-zan sañera ta beste Sakramentu guzietarako eskubidea.

Sendortzak azitzen eta bizkortzen du kristau beñiaren siñespena edo fedea.

Jaunartzeak indar beñiak ezartzen dizkio bere animari, eta jaungoikozko bizitza azkartzen du.

Aitortzak sendatzen ditu animaren gaitz aundi ta txiki guziak; eta Bataioko bizia galduari, beñiro itzultzen dio.

Apaizgoak paratzen ditu Jesus'en ordezkio beñiak, kristau eñia zaintzeko, azitzeko ta bide onez eramateko.

Ezkontzak fedatzen eta ontzen du gizon eta andrearen arteko biziera eta kristau taldeari ematen dio iraupena.

Azken-igurtziak askotan osasuna ematen dio gaxoari, eta guxtienez daramazkien nekeak aixago eramateko indafa ta bizitzeko uts guzien aztarna zikiñak garbitzen dizkio kristauari.

Graziaren iturri auek baño ¿zer egokiagorik, gizonak dituen beañik aundienetarako?

Sakramentu beañezkoak eta gogozkoak

Sakramentu batzuek dira gogozkoak, edo gogo duenak artu, ta nai ez duenak utzi dezazkenak. Onela dira Apaizgoa ta Ezkontza berez.

Beste sakramentu batzuek dira beañezkoak eta naita-naiezkoak nolabait, esan nai da, zeruan sartzekotan nolabait ere artu bear diranak eta onela dira Bataioa ta Aitortza (au ezagueran sartu ondoren pekatu lañian erorientzat).

Eta beste batzuek zeruratzekoz axola gabekeriz utzi ez ditezkenak, onela dira Sendortza, Jaunartzea ta Azken-Igurtzia.

Sakramentuen egingariak

Lau gauza bear dira Sakramenturik egitekotan: 1ª. *Gaia*; 2ª. Bizigafia; 3ª. Egilea; 4ª. Artzalea. *Gaia* esaten zaio, Jesukristok sakramentua egiteko jafi zuen gauzari, edo egiteko ikusgari bati. Ura, ogia, ardoa, olio, eskuak buru gañean jartzea, gaiztakeriak aitor-tzea edo alkañi itz ematea, oñ zenbat eta zer gauzak izan ditezken sakramentuaren gai.

Sakramentuaren *bizigari* dira, ori egitekoan sakramentuaren egi-leak esaten dituen itzak. Onela bataioaren bizigari dira: *Nik bataioa-*

tzen zaitut Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean, itzak.

Gaiak eta *bizigaiak*, biak batera emanik, egiten dute Sakramentua. Sakramentuaren bizigafia ezpa-da esaten, sakramentuaren artzaleari gaia ezartzekoan, ezta sakramenturik egiten. Eta naiz gaia ta bizigafia ere batera jafi, Sakramentuaren Egile egokiak ezpa-ditu jartzen, ezta sakramenturik.

Sakramentuaren egilea esaten zaio, Jesukristoren ordeztzen eta aren izenean sakramentua egiteko eskubidea Arengandik duenari. Bataioaren egile edozein gizon edo emakume da; Sendortzaren egile befiz, berez Obispo Jaun eta goragoko eliz-gizonak, eta onela.

Sakramentuaren artzale da, ori artzeko gauza dana. Bataioa artzekoz, bataiatu gabea; Apaizgoa artzekoz gizonezkoa; azken igurtzia artzekoz, iltzeko afixkua ufen edo urbil duena, eta onela.

Sakramentuen ondoreak

Sakramentu batzuek animari ematen diote galdurik zeukan bizia; berez Bataioak eta Aitortzak. Azkeneko onek askotan bizia geitu ta azkartu egiten du, naiz berez emateko izan.

Beste sakramentu guziak berez bizi ori azkartzeko dira, baño aldietan bizi-emale biurtzen dira, ta ori gertatzen da, oiek artzean uste etzuela pekatu lafian zegoanarekin.

Iru sakramentu ba-dira animan azterna berezia ezafirrik uzten dutenak. Auek dira Bataioa, Sendortza ta Apaizgoa. Auek artu dituen animak betiko ezagungo dute, berei ezafitako azterna ori. Argatik iru sakramentu oiek ez ditezke bein besterik artu.


Sakramentua artzen duenak bear dan prestaera ez deramanean, eztute bereala berezko grazia animagan ixurtzen; baño eragozpen ori animak kentzean bai. Jauna gaizki artzen duenak, au oraindik bere bafuan duala damutzen ba-da ere bai.

Maita ditzagun oren aberaspide eroso ta ugariak.

Intza'r Damaso An. O. M. Cap.



Zendoya.



**Tomas Muniz Pablos Jaun Guziz Agurgaria
IRUÑAKO GOTZAIA**


Real de la Jara esaten zaion Andaluzia'ko efian jaio zan 1874'eko Iibeltzaren 20-gafenean. Leon'go Apaizgaitegian bertako Buruzagi izan zen. Jaen eta bere inguruetako Apaiz buru (Arzipreste) izana da. Artean Baeza'n zegoan Apaiz.

Gero Madrid'ko Rota'ra eraman zuten bere jakinduri aundiaz eta Eliz-auzitegi ortan oso maitatua zan orai artean. Garagañilaren 3'an sagaratu zuten Madrid'en Gotzai. Ilabete oñean 17'an egin du bere Gotzai Alkiaren afera ta 30'ean befiz bere sañera.

Jaungoikoa lagun bekio bere Gotzaizkoan urte askoz eta Napañoak beragan artuko al du Jaunaren Ordezko befia, dagokion biotz onez eta gogo ekañiaz.

Gure aldetik agufaldi gogo guzizkoarekin geren otoitzak bere alde eskeintzen dizkiogu Jesus Artzai Onari.

IDAZLEAK



Mujika ta Uřestarazu'ar Mateo Jaun
Guziz Agurgaria, Gazteiz'ko Gotzai beřia

Aita Zakarias Martinez, Goigotzai agurgariaren lekua betetzera dijoo ġipuzkoar jator eta bikain ori. 1870-ġafen urtean Idiazabal'en jaioa ta Ordizia (Bilafranka), Oñati eta Gazteitz'en bere ikastaro-k eġiņa da. Lenengo Meza oġeita lau urte betetzerako eman zuan. Bi urtez Usurbilen egon zan Apaiz; Salamankan *Doctor* eġin zan eta Gazteiz'ko Apaizġai-teġiko Irakasle aukeratu zuten. Bertako Kanonigo *Lectoral* izatea irabazi zuan 1903'an eta antxe zegoan 1917'an Osma'ko Gotzai izentatu zutenean. Uřengo urleko Garagafilaren 24'ean sartu zan an, eta orain lau urte aldatu zuten Iruņa'ko Gotzaizkora. 1924 ġafeneko Otsailaren 24'ean eġin zuan bere sařera zorionekoa, baņo ain egun gutxitarakoa.

«Atzo zela ematen du» dio berak bere etoferaz bere azken Artzai eskutitzean; baño obeki esan genezake naski amets baten antzekoa izan dela bere egonera guretzat, amets gozoegia, luze irauteko, Napar euskaldunentzat batez ere.

Betiko gurea izan bear etzuenik ez genun siñesten, baño ba-dijoakigu, berari ere min ematen diola, baño gu beintzat naigabe edefarekin gelditzen gerala.

Azkenean poztutzen gaituen gauza da, euskaldunekin gelditzen dala ikustea. Gureñ naigabea zuen gozagari izango dala ba-dakigu, gure irakurle biotzeko geienak, onek gutxitzen duela dirudi gure miña, baño ez gera naski egun batzuetan aztuko Napañoan egin duen lanaz.


Napañoako Elizaren ona, bere betiko etxearena bezala biñatzen bai zuen. Apaizgaitegi beria egin, Aralar'ko Migel Goiaingeru eta Oñeagako Ama Birjiñaren Baselizak edertu ta aberastu, Ama-Birjiña Sagrariokoa koroiatu eta beste zenbat asmo on lotu zituan bere kolkoan.

Baño ezta asmotan gelditu. Zazpi Artzai eskutitz, zein baño zein mamitsugoak eman dizkigu lau urte auetan. Ez tira bela aztuko batez ere Biraoaz, emakume jantzieraz, dantzaz eta jostaketaz, Aralar'ko Goiaingeruaz eta azkenean jai-egunaz eman dizkigunak.

Euskaldun napañak noiz entzungo ote dio befiz bere Gotzaiari euskeraz, oni bezala itzegiten? Euskaldunik Napañoan izango den artean ezta Mujika Jaunaren izena aztuko eman digun Kristau Ikasbideari eskefak.

Agur, Jauna. Ba-zoaz, baño *Zeruko Argia* ere bai zuri jafairoz. Zure itzalpean ongi izan gera lau urtez, ta asko geiagotz nai aufera.

Mejiko'n gertatua



Z da gauza eñexa, jakitia, azkeneko garai auetan, Mejiko'n gure anai kristauai egin dizkieten gauzak, Elizaren etsai galdu ayek. Obispo Jaunak, Apaizak ta Kristau guziak gofi-gofiak igaro dituzte Jesukristoren alde bizi nai izan dutelako, ta egiazko erlijio santua beren biyotzetan il arte gorde nai izan dutelako.

Gertaera izugariak gertatu dira efi ayetan, baño batek afitu nau batez ere, egun auetan ango aldizkingiak diotenez.

Betanzos deritzayon Jaun agurgafi ta kristau bikañari gertatu zayo. Kristau zintzoa zan, ta apaiz jaunaren alde agertzen zalako beti, beste kristau askokin batean kartzelan sartu zuten Elizaren etsayak. Etzitzayon ajolik, bere andre ta zortzi urteko seme bat utzi bear izan zituan, baño Jesukristori pozik eskeñi zion bere bizitza.

Bere lagunen artian kartzelan zegoan, baño kartzela bete beterik zegoalako, poliki-poliki guziak iltzen zituzten barkatu gabe.

Bere ondoko gela batian zegoan adiskidea, goiz artan il zuten. Bildur gogofa sartu zitzayon Betanzos Jaunari, baita ere batzuetan indafa galdu, batez ere beren Jaungoikoak kristauei ematen diyen komunioko janaria ematen etziyotelako.

¡Komunio Santua artuko balute, bizkor indartuko lirake beren biyotzak, baño zer asmatu Komuniyo Santua artzeko! Ara zer gertatu zitzayon.

Leyoan zegoan, bere gelako leyoan ta kartzel aüfetik, bere etxean neska me egon zan emakume bat igaro zan. Ikusi zuanian, deitu egin zuan ta leyotik paper txiki bat bota ziyon esanaz: Bakizu nola gauden emen, laxter ilko naute, beste kartzelako kristau guziak iltzen dauden bezela; indafa bear det, pozik artuko nuke Jesukristoren Gorputza Komunio Santuaren bidez, bere adixkidetasun ta maitetasunean iltzeko. Esayozu nere gogoa nere emazte maiteari, ta agur egin nere seme gazteari.

Emakume afek laxter eraman zuan paper txiki ura Betanzos Jaunaren etxera.

Ufengo egunean bere seme gazteak bere lenengo komunioko eguna zeukan. Obispo Jaunak esan zuan Meza Santua, ta eman zien kristau guziei Komunio Santua. Mutil afek eskatu zion, afen, baimena emateko, pozik eramango ziola berak Komuniyo Santua bere aitari, kartzelan egon afen.

Ala gertatu zan. Obispo Jaunak eman ziyon Ostia Santua, ta mutil gazte ura, len Tarsizio Santuak egin zuan bezela, kartzelarontz abiatu zan, bere bular gañian pozaren pozaz Jesukristoren Gorputza Ostia Santuan artu ondorean, bere aitari Komuniyo Santua eramateagatik.

Kartzelara eldu zanian, galdetu ziyon ate-zayak: ¿Zertara zatoz?—Jauna, nere aita maiteari azkeneko agufa egin nai nioke, asko maite bai det.

—Joango zera, baño sartu baño len etofi zaitez, kutsu gabetu bear zaitut. (desinfectar)

Bildurtu egin zan aüfa, bere etsayak, bular gañian zer zeraman eza-gutuko ote zutelakoan, baño ez, etziran oartu, ta baimena eman ondorean bere aitagana joan zan poz-pozik.

Nola poztu zitzayon bere aita... «Tori, artu zazu, emen dakarkizut Kristauen Jaungoikoa, Ostia Santua, Komuniyo santua, artu zazu, aita... baño laxter, artu aita, artu, laxter...—¿Zer dezu bada, seme maitia?...—Gaizki nago,... ez dakit... gaizki nago... esan zazu *Jesukristo nere Jauna...* laxter... biyok esango degu...»

Jesukristo nere Jauna esan, ta bere semeak ekafitako Komuniyoa artuta, bere aitaren besoetan ilik gelditu zitzayon seme maite ura.

Kartzelan sartu baño len, ate-zayak pozoia sartu ziyon bere gorputzean.

Gazte ura, Tarsizio Santua bezela Jesukristorengatik ila gelditu zan.

Donosti'ar Gabriel A.



Loyolako Iñaki Deunari

ELDUAYEN A.

Maestoso

Batek

p *f* Eus -

kal E - ri - a - ren Se - me be - re - zi - a Az - pei - ti - an zu -

(4) Fagot

en i - zan sorto - ki - a U - tzi - rik gaz - te - rik Jain -

kozko bi - de - a zu - - en mai - ta - - - tu bes - - - te - a

Danak

ff Eus - kal E - ri - a - - ren Se - - me be - re - zi - - a Az -

pei - ti - an zu - - en i - - zan sorto - ki - - a U - tzi - rik gaz - te -

rik Jain - kozko bi - de - - a zu - - - en mai - - ta - - - - tu

- bes - - te - - - a.

4. Jesus agerturik dago sendatua
Gabaz du bakafik uzten gaztelua;
Monserrat mendian da beila aundia;
An dauka gogo guzia.

2. Aundinai-goseak zuen soldadotu,
Bañan Iruñan zen guduan zauritu;
Jaunaren graziaz laster ezagutu
Nola zen munduan galdu.

5. Bere efitar Frantses fama gose zena
Jesus'en itz auez santutzen du dena:
«Frantses, zer zaizkitzu oro baliatzen
Anima baduzu galtzen?»

3. Santuen bizitza zuen irakufi
Eta zer dakafen geroak ikusi;
Geroztik du artzen Zeruko bidea
Artan ematen txedea (asmoa).

6. Orain, Iñazio, Zerutikan zaude
Otoitz gartsuenez Euskaldunen alde,
Gorde dezaiguzu guziei fedea
El gaiten txede berera.



IKASI

(Nere alabatxo maite Miren-Arantzazu'ri)

*Malkar-ertzeko lar mordoetan
sasi-añosak apainki
txuri txuriak agertzen dira
loretan liluragari.*

*Ta zofoitz diran sasi-mordoak
samur dauzkate gañetik
berdingabeko likurt gozoa
boteaz beren mamitik.*

*Sasi mordo onek inguma ariñez
jositakoa dirudi
noizipein ofi txuri batzuek
aidatzen dirala arinki.*

*Añosa txuri panpiñetara
erlea ere an doa
beren gañean eztiki ona
gozo edoski asmoan.*

*Ta berdingeko samurtasunok
ikustean ain gelgari
lili politen albo gozora
ume bat doa agitz pozik.*

*Bañan ail, bertan lore politok
gozoro biltzen astean
ugari ditun arantz zofoitzak
zulatzen dute umea.*



*Eta añosari eltzean laister
jausi zaizkio ofitxoak
arantz utsezko txorten zofoitzak
gelditurik eskutxoan.*

.....
*Gure artean ere askotxo
daude orlako «loreak»
gazte eder, apain azalez, baña...
baruz arantzez beteak.*

*Eta biltzeko garai latz ura
Jaungoikoari irixtean
Berau etzaigu atzipetuko,
umetxo afen antzean,
¡¡ta aranzdun gazte, «lore» politok!
galduko dira lezean!!*

Zubigar

Andre Mari'renganako egiazko jaiera



AINKOZKO apaiz jaun batzuek eskean etofi zazkigu; eta oien eskabidea bidezkoa ezezik, agindua da guretzat: ZERUKO ARGIA bada, batez ere Euskalefiko apaiz jaunai animen onerako lanean laguntzeko, oien mofoi izateko sortu zan da.

Zer eskatu diguen? Aspalditik gogoan generabilen eta maite-maite gendun gauza, *Euskaldunen Eregiña*'ren, *Gure erien atsegiña*'ren, Zeruko gure Ama maitearen alderako gauza eskatu digue.

Gure aldizkari ontan Montfort'eko Luis M.^a Grignion zorionekoak erakutsitako Andre Mari txit deunaren alderako egiazko jaieraren befi eman dezagula eskatu digue.

Nola uko egin bada aifn gauza eder eta bikaña, euskaldun kristau zuzenai aifn on aundia egin dezakieken gauza, geok aifn atsegin degun gauza eskatu diguen apaiz jaun jainkotiar oiei?

Bertatik goaz bada lan ofi lotzera. Ofetarako Monfort'eko Luis Maria Grignion zorionekoak berak idatzitako gutuna, *Andre Mari txit deunaren alderako egiazko jaiera*, argitara nai genduke al dana laburturik.

Bañan aufetik biotzen Efeigiñari arazo onetan argitu ta lagun gaitzala eskatzen diogu, bere mirabe izateko itza eman genionen lan au bere aintzarako izan dedin. Eta beste itzaufferik gabe, asi gaitezen.

Lenengo agefaldia

Andre Mari txit deunaren alderako jaieraren beara

I. Andre Mariaren aundi izatea.

Jesu Kristo gure Jauna Andre Mari txit deunaren bitartez etofi zan mundura eta bere bitartez izan bear du ere munduko efege.

Andre Mari txit deuna, lur onetan bizi izan zan artean oso ezkutuan egon zan. Eta bere burua, Jainkoak beste iñork ezagutu etzezan, gizonai ezkututzen alegin guzia egin zun.

Alare Andre Mari Jainkoaren lanik bikañena da; Jainko-Semearen Ama eta Espiritu Santuaren Esposa zintzoa. Andre Mari Irutasun txit deunaren etxea ta egontokia da ta etxe ortan ezin daiteke iñor sartu, Jainkoa besterik. Gauza aundi ta afigafiak egin ditu Jainkoak Andre Mariarengan eta berak dio: *«Fecit mihi magna qui potens est»*.

Munduak ezin ezagutu ditzake gauza eder-aundi oiek, eta ez da eza-gutzeko gai ere.

Santuak gauza aundiak esan ditue Jainkoaren etxe santu ofetaz; eta guziak batera dioe gizonak ezin dezakela ezagutu, Andre Mariren bikainta-

suna eta aunditasuna zenbaterañoakoa dan; eta Jainkoak eman dizkion eskafak eta ederkunak zenbaterañoakoa diran.

Une guzietan zeruko eta lufeko izaki guziak goratzen due Andre Mari txit deuna.

Gauza oiek egiak diralarik, esan dezakegu santuakin batean: «*De Maria nunquam satis*»: beñere ez degula naikoa goratuko gure Zeruko Ama.

Ama nor dan ezagutu nai dunak Semea ezagutu bear dula lenengo, dio santu batek.

Andre Mari txit deuna bear bezela ezagutzen ez dalako, ez da Jesu Kristo ere bear bezela ezagutzen. Eta Jesu Kristo mundu guziak bear bezela ezagutu bear badu eta mundu guziaren Jabe izan bear badu, Andre Mari txit deunaren bitartez iritxi bear du ofetara.

Ataundar Boni. A.

O. M. C.

1928 - I - 13.

ZUBITIK BERA

1880'gañen urtean Zisterno efi txikira iru tratulari (salerosle) zijoazen; efi ontan merkatua zan. Bere egitekoak egin ondoan etxera juateaz itzegiten asi ziran. Biaramon goizean goiz ateratzea erabaki zuten afatsalderako etxean egoteko.

Aietako batek argi esan zuan berak etzuela joan nai; igandea zala ta Meza entzun nai zuala lagunai esan zien. Besteak etzuten amor eman ta uste izan zuten erosoago ibiltzeagatik Meza uztea Jaunak barkatuko ziela.

Biaramonian argitzen asi orduko Zisterno'tik atera ziran beren laguna Meza entzuteko erian gelditu zan bitartean. Ordu batzuk beranduago bi lagunak Corfuone ibaiaren ondora etofi ziran; onen gañean zurezko zubi bat zan. Añefeko egunetan euri asko egin zuan. Eguraldi txafak ta ibaiaren urbizi biziak zubia maskaldu ta galtzera bota zuten ta zubi azpiko pilareak dardaratu zituzten.

Merkatariak onen berri etzekiten ta neñiririk artu gabe bere abereen gañean zubian laixterka (kofika) sartu ziran. Pisu onekin ta, ur piloakin zartaturik urak zubia afastaka eraman zuan ta zubiarekin zaldiak ta zaldunak. Nekazari batzuk oju batzuk entzun zituzten. ¡Lagundu! ¡lagundu! zioten urak afastaka zeramazkin zoritxafeko aiek; baño laguntzea eziñezkoa zan; alegiñak egin ondoan aien gorpuak atera zituzten.

¡bai baztefean beren gorputz ilak utzi zituzten; jendetza aundia aiek ikusten izan zan, baño batek ere etzituan ezagutzen.

Azkenean irugañen merkataria etofi zan bide beretik; bere adixkideen gorpuak ikusi ta ezagutu zituan ta nola il ziran an zeudenak esan zioten. Merkataria onek Jaungoikoaganako esker onez beterik, zeruruntz besoak jaso zituan ta guziaz adierazi ta esan zien nola alako eriotzatik gorde izan zuan Jainkoak ta *aitortu zuan Meza entzutean izan zuan leialtasunari, zintzotasunari bizia zor ziola.*

(Scherer)

Osinburu. O. M. Cap.

MISIOAK

IRAIZOZ'TAR P. A'RI

Iruña'n



Ataundarari idatzi nionagatik, onezkero badakizkizun oski, Urila bitarteko nere gora-berak. Geroztik ere nere bizitza berdintsua izan da.

Azaroa'ren 15'eraño, ezin biurtu izan nintzan nere Pingliang'o txokora. Bitarte ortan Kingchow'n egon bear izandu naiz, an daukagun mixio-etxea zaitzen, eta bertako mixiolaria noiz etoriko zan zai.

Bañan ez uste beti etxean sarturik egon naizenik. Noiz beinka atera al izan naiz batayo ta ezkontzaren batzuk egitera edo kristauen etxen batzuk bedekatzera

Zortzi bat egunez ere gudariak ugari izan nituan nere etxean. Bañan aldi ontan ez nuan okerik izandu. Oyen gudaiburua, protestantea da. (Gudari tartean protestante asko dira, emengo guzien buru dan Fung-yu-siang orela da ta. Alderdi ontako eri geyenetan ere protestanteak badituzte beren mixio-etxeak; bañan beren artzai guziak, orain ilebete batzuk, alde egin zuten. Mixiolari katolikoak beriz sei besterik ez gera alderdi ontan). Gudalburu ori bi bider sartu zitzaidan nere gelan, ikustaldi bat egitera, eta alkarekin tea artu genduan.

Bein, Peregrin A. nerekin zegoala, etori zitzaigun gudari talde bat, eliza ikusi nai luketela: eraman genituan elizara ta Peregrin A'k, bertako irudiak azalduaz, itzezin zien Jesukristo'z, Redenzioaz, zeru ta infernuaz eta abar. Gero beste kristau batek luzaro itzezin zien, gure dotriña erakutsiz; geyenak areta aundiaz entzuten zutela. Berealakoan ezpada ere, noizbait orduan entzundako egiak, beren buruak argituko al ditu.

Pingliang'eratu ezker, biritan izandu naiz Huating'en. Eri onek mandariña ta guzi baditu ere, txiki xamara da, 3000 bizilari edo; pagano ta maomatarak erdi banaka; protestanteak ere badute beren etxea. Eri-baruan bi seindi bakarik dira batayatuak, beste katoliko guziak uruti bizi dira, ogei ta geyago kilometro eta oso sakabanatuak. Denatara 61 kristau, ogei seinditan.

Seindi geyenak ezin ikusi izan ditut, lapur tokitan bizi diralako ta aldi ontan lapurak ugari. Ala ere zuzendu al izan det, kristau batek oker egindako ezkontza. Emakume pagano batekin ezkontuta zegoen bear dan dispensarik eta ezer gabe, paganoen antzera. Berak ere gogo aundia zeukaten, egindako okera zuzentzeko. Emakume aurtent batayatuko ote deten itxaropena badaukat, otoiitzak eta ikasten gogotik ari da. Famili ontan, bein lapurak sartuta, beste gauzen artean erosarioak ere eraman zituzten. Berak beste erosario bat, Euskaleriko eskolentan zenbatzen ikasteko dituzten bezelakoxe ale batzuekin, beste aundi bat egiña zeukaten ordañez; nik ori ikusita nerea eman nien.


Katekumeno berri baten etxean, zeukaten idoloa eta beste superstizioko gauzak, kendu azi nizkien eta ordañez jari, nere moroyak idatzita, kristar maxima batzuk.

Datoñen astean beriz Huating'era joango ote naizen; angokatekumenoak datoñen ilēbeterako, dotriña ikasi ta batayorako gertutzera. Bañan bildur naiz lapurēgatik ezin etori izango ote diran. Jainkoak lagundu bezaigu.

Joan dan ilābetea, alderdi ontako mixiolari guziak Sifengchen'en batu giñan. Ori poza an denok baturik ikustean! Bada ezin genezake noiz nai alkar ikusi. Bata bestearengana joateko larogei ta geyago kilometro egin bear ditugu. Gergori A. datoñen ilābetea ikusiko det beriz; onera etortzeko asmoa du-ta. Ondo ta gogor ari da lanean.

Mixiolari berriak, azkeneko egun otan ezpadira eldu, J. L. laixter elduko dira. Benetan bide luzea izan dute ta agian guk baño txaragoa.

Txina'n urteberiko jayetan oraintxe gaude: aurtengo jaiak oso otzak. Urte berri on bat, beraz, nere ezagun ta adixkide guzieri, «ZERUKO ARGIA»ren idazle ta irakurlei, gure ongile guziaz (Jaungoikoa ta oyeri eskerak, emen zer edo zer egin dezakegu), baño batez ere zuri, nere adixkide ta Aba maite oñeri.




Iruña'ko Gotzai J. G. A. sagaratzean

Ikasi..! Ikasi..!



I.—*Lekaroz'kp* ikastun Juliantxo Iturbe ikastun txintxoa ta ona da orixe; Ofen ona dalako, udan gurasoak Amonaren etxera joaten utzi dute.



II.—Amona gaxoaren poza ta atsegiña! Etxe-zoko guziak erakusten dizka.
—«Sorgiñak etxe ontan ba omen dabilta, Ez al dezu beldufik?»—«Bat ere ez, amona.»




III.—Afatsean mutila joan da oera; Bat-batean leioan ots bat aditzen da... *Karak, karak, karak...* zer afano ote da? Sorgiñen bat al dabil leioan karaka?



IV.—Mutikoa jaiki ta poliki-poliki Urbiltzen da leiora... Zer du an ikusi? Gizon arpegi-beltz bat, burni bat eskuan Leioko burniagak idiki naiean.



V.—Ezta gure mutila bat ere ikaratzen, Ezta laguntza eske oiuz ere asten. Lapur txarak gutxien uste zuenean Ora! *sorgin* zuri bat besoak zabalik Jartzen zaio barnean begien auean.



VI.—Lapufa ikaturik buruz bera erortzen, Buruko ileak ere beldufez zuritzen, Afi-kozkor bat jo ta buru-ezufa austen. Biaramon goizean exteko moroiak Leioaren azpian *ja* omen zuten.

== B E R I A K ==

Sydney'ko Eukaristi-Batzaia ta protestanteak

Aurten Autralia'ko efi ortan egingo dan Batzar edo kongresoa begi onakin ikusi dute ango agintariak ta katolikoak bezela sinisten ez duten beste askok ere. Ez ordea guziak. Protestanteak bildu dira ta asi dira esaten, gobernuaq galerazi bear lukela katolikoak egin nai duten prozesioa. Ondo deritzaie protestanteak katolikoak beren elizetan egingo duten guzia, baño ezin dute ikusi, onelako Batzaretan egiten dan bezela, Jauna kalez-kale eramatea. Protestanteak, berak nai gabe, on aundia egingo die katolikoai; eztabaidan asi diranetik bada, len Batzar oni ajolik gabe begiratzen ziotenak, beste gisara begiratzen diote orain.

Txina'ko aurtxo erukariak

Txina'ko efi batean, aur jayo-befiak artu ta zaintzeko zeukaten etxea, monjak itxi bear izan zuten. ¿Zergatik? Gauzak gero ta okefago zijoazelako ta gañera mixiolariak beren sendagayak egiteko, aurtxoai begiak ateratzen zizkiela esaten etsaiak asi ziralako. Aur gaxoak erzuten ezer irabazi, etxea ixtearekin. Egun batzuek geroago, ařantzale batek bere sarea bota zuen monjen etxe aufetik dijoan ibaian ta ¡gauza ikaragarria! sarean bost aurtxo jayo-befi, elkafi lotuta atera zituen. ¡Ta zenbat ez ditu gordeko oraindikan ibai ofek bere uretan!

Mejiko'ko gauzak

Londres'ko periodiku batek dakartzki andik bialitako eskutitz edo kartetan jakin ditun befiak. Batek onela dio: Calles'en adiskideai etzaye iya egunik joaten, beren gogotoa erakutsi gabe. Etxe batetik (au askotan gertatzen da) meza ematen zegoan apaiza ta bertan zeuden kristauak espetxe edo kartzelara eraman dituzte egun oyetan. Baño ezta au bakarik; Calles'en ordezkariak meza erdiraño geldik egon ziran ta apaizak ogia ta ardoa konsagratu zituenean, apaizarengana joan ziran, makilka jo, aldarean zegoan guzia bota ta ezin esan alako gauza ikaragarriak egin zituzten. Beste toki batean gobernadoreak legea onela eman du: Eriotza emango zaye apaiz katolikoari edozein sakramentu eskatzen dioten guziaz ta multak ordaindu bearko dituzte. Beste gauza asko ere badira emen, emendik ufuti ta ikusi gabe sinistu ezin diranak.

100.000 kristau Ama Birjiñaren oñetan

Oso jai aundia izan da Arjentina'ko Santa Fe deritzaion erriak ikusi duena Mayatzean. Arjentina'ko toki ufutienetatik gizon, emakume ta ume ugari bildu ziran jai oyetara. Eliza txikia zalako, jai plaza erdian egin bear izan zan ta meza ondoan Aita Santuaren Ordezkoak beste gotzai edo obispo batzuekin ango Guadalupe'ko Ama Birjiñari urezko koroia buruan ipini zion.

Mejiko'ko katolikoen ordeiz etofi ziran batzuek ta Ama Birjiñari ziñarezko argi-ontzi bat ta ure-zigofa (cetro) eskeñi dizkiote.

Katolikoak Islandia'n

Len katolikoa izana ta gero protestanteen eskuetan erori zan ugarte (isla) au ari da beriz Elizan sartzen. Poz aundia eman die katolikoai, Jesukristo Efegeari eliza altxatzeko, Aita Santuak biali dien dirua. Diruarekin batean, Jesukristo Efegearen irudia biali nai izan die. Eliza befi ortarako ezkiñak edo kanpaiak protestante batek eman ditu.